

Txillardegi

Idazlea

Iragarkizunak

■ Nik ez dut ulertzen. Edo-ta, itzuletara, oso ongi ulertzen dut. Sekulako jorana erakusten dugu euskaldunok gure herriaren egoerarekin batere antzik ez duten kasoak gogoratzeko; baina, era berean, funtsean anaia bizikiak diren herriekiko, hotz agertzen gara.

Ilunpetara jotzen dugu argi bila; eta argi-iturri nabarmenak izan daitezkeen kasoei, ez-ikusia egiten diegu.

Harrigarria... omen.

Hementxe daukat, esku artean, Riga-tik iritsi berria, Latvia-ko Unibertsitateak argitaratzen duen *Latvia* aldizkariaren 12. alea. Gai hau hartu du ardatzat: *Minorities in Latvia*.

Eta laburtu bederen egingo dizuet.

Aurtengo Erroldaren arabera, hauxe da egoera demografikoa: 816.000 errusiar (% 32,6); 100.400 bielorrusiar (% 4,0); eta 73.600 ukrainiar (% 2,9). De facto *errusieraz* mintzo den multzo eslaviarrak, beraz, % 39,5eko maila du.

Hiriburuan, batzuetan errepikatu izan dugunez, errusiarrek dira nagusi: 361.900 errusiar Rigan; 321.600 latviarren ondoan.

Sovietar Batasunak Letonia (Latvia diote bertakoei) okupatu baino lehenago ez zen hori gertatzen: 1935ean % 77,0 ziren latviarrak, eta % 8,8 besterik ez errusiarrek (% 10,3 besterik ez eslaviarren multzo osoa).

Okupazio Sovietikoaren ondorioz, hitz batez, *laukoiztu* egin da eslaviarren kopurua. *Genozidio* hitza erabiltzea gehiegizkoa litzateke. Baina *sozialismoaren izeneko etnozidioa* gertatu dela ez da gehiegikeria.

Sovietar-ohien jarrera, dena dela, ez da aldatu. Errusiarrek, bielorrusiarrek eta ukrainiarrek, oraindik ez dute irentsi herri baltikoak ez direla Errusiako parte.

Baltikar hiritargoa emateko (eta honekin eskubide politikoak lortzeko), Tallinnek, Rigak eta Vilniusek baldintza *linguistikoak* jarri dituzte. Badituzi 20, 40, 60 urtez han bizi diren errusiarrek, eta enparau eslaviarrek, ukana dutela denbora *bertakotzeko*, eta latvieraz, estonieraz, eta abar, mintzatzeko.

Hots, estatistikek ez dute hori erakusten. Etorikinek, oro har, *paso* egiten diote bertako hizkuntzari (mespretxatzen dutela garbi utziz).

Okerrenak ukrainiarrek dira: % 6,3k besterik ez dute lortu latviar hiritargoa. Ondoren bielorrusiarrek datoz: % 19,4; eta errusiarrek agertzen dira integratzeko prestenik: % 38,1. Garbi esan-

da, hitz batez, etorkinik gehienek ez dute batere interesik erakusten bertako kulturekiko. Bideabar esateko, eslaviar etorkin horiek errusiartuta daude, oro har.

Eman ditugun zifretan ikus daitekeenez, eslaviar etorkinak % 39,5 dira Latvian. Erdia ia-ia; gehien-gehienik hirietan kokaturik. Hots, 1993ko datuek erakusten dutenez Latviako haurren artean, % 45,4k ikasten dute oraindik errusieraz. Bi ehuneko horiek alderatuz (% 39,5 eslaviar, % 45,4 errusierazko eskolatan); eta latviarrek oso hizkuntz kontzientzia zorrotza dutela (herri guztiek bezala, irlandarrak eta euzkotarrak salbu) gogoan hartuz, ondorioa hau da: eslaviar etorkinek bloke egiten dutela baltikar herrien kontra.

Etsi dutenek hanka egiten dute. Azkeneko bost urte honetan (1991-1995), *panorama* ikusita, 123.700 etorkin itzuli dira beren jaioterrietara (errusiarrek, eta abar, jakina).

Eta besteak, Zhirinosvsky fatxaren aholkuak jarraituz, *errusiar organizazioetan* elkartzen hasi dira. Aurtengo urtarrean sortu da *Latviako Asanblada Errusiarra*, eta aurrean bertan ere beste elkarte errusizale horietako bat: Tallinen elkartu zen *Baltikoko Errusiar Bilzarrea* (Estoniako hiriburuan sortua).

Errusierazko prentisari eustea da eginkizun nagusietako bat. Oraindik ere lau egunkari argitaratzen dira Rigan errusieraz: SM Segodnya, Panorama Latvii, Biznes I Baltija, eta *Ruskaya Gazeta*. Eta beste mordo bat probintzi mailan.

Baina latviarrek ez dute amore ematen: 2006rako Unibertsitate *guztiak latviara* hutsuz ibiliko dira. Orain bertan ere, batxilergo-titulua lortzeko, ezinbestezkoa da latvierazko etsamina gainditzea.

Eta errusierazko kulturaren gainbeherakada hasia dela garbi agertzen da. 1993an hil zen errusierazko *Rodnik* izeneko magazina; eta ia, 1995ean, *Baltiskaya Gazeta* egunkaria desagertu zen. *Eskubide berdintasunaren* izeneko alderdi errusizaleak, 7 deputatu besterik ez du lortu azkeneko hauteskundeetan; eta *Nazio-Harmonia* izeneko (10 urte egonaldia, gehi hizkuntza etsamina) alderdi errusizale moderatuak, 12 deputatu lortu ditu. Beste zantzu bat: azken bolada honetan, 50 errusiar liburutegi hertsia dira Latvian.

Eraso latza jasan dute latviarrek soviatar garaian; eta ez askoz apalagoa estoniarrek.

Aurrera aterako direla egingo nuke apostu halere. ■



J.L. Davant



Zeren idatz?

Batzuek idatz dezakete mezu baten hedatzeko: nik ere horrela egim dut luzuz, abertzale mugimenduaren alde. Baina literaturan besterik da. Hor ez gaituzte besteek behartzen, eta bat nator *Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren 14. zenbakian, *Idazle* titulupean. Rufino Iraolak izkiriatzen duenarekin: neure buruarentzat idazten dut lehen-lehenik, enetat *bizio* bat da, ezin naiz hori gabe pasa, eta zerbaiten irakasteko baino segurrago, zerbaiten ikasteko ari naiz.

Bide beretik doa Frantziako telebistak duen 5. kateetik, hazaroaren 22 goizean, entzun dutan emankizuna, Jean-Claude Carrière idazleak baitzuen «bizitzeko idatz» egiten dela. Bi zentzutar har ditaie naski: bizitzeko behar den dirua irabaz dezakete batzuek horrela, baina guti dira lumatik bizi direnak, bereziki eskual letretan; beste guztiek terapiatz idazten omen dugu, bizitze neketsuak dakarkigun astun edo/eta ilunaren jasaiteko lagungarri zaigulako. Iduri zait idaztea droga bat eta doping bat dela. Beraz jende askorentzat gauza ona izan ditaie idaztea, eta lehenik nor berarentzat izkiriatzea. Publikatzea beste gauza bat da, noiztenka batzuentzat gerta ditaiekena.



Lontxo Oihartzabal



Giroa eta errealitatea

Gabon-giroa bete-betea sumatu ahal izango zuen asteburu honetan gure hiriburuetako kaleetan zehar ibili denak. Kolore guztietako argiz dir-dir, era guztietako eskaintzak dendetako eskaparate bereziki apainduetan: janariak, edariak, jantziak, pitxiak, jostalluak! Horretarako asmorik ez duenari ere erregaliak egiten hasteko gogoaz piztuko lioke hainbeste eskaintza erakargarrik.

Garai batean hazi eta hezi ginanontzat etxegiroa, senitartekotasuna, pakea, onginahia, justizia bezalako balioen aldarrikapenaren oihartzuna dakar buru-bihotzetara gabonaldiak. Zenbat eta zenbat izango ote dira, ordea, itxura gorde beharraren beharrez, aurretan ere beren buruak zorren amiidegi beltzera botako dituztenak? Pakearen ordez zorrek dakarten larritasuna, ondoeza sumatuko ditu batek baino gehiagok aurtengo Gabonetan.

Beste askok, aldi berean, bakardadearen, zokratzearen, beharraren atzaparrak sumatuko ditu, gorri-gorrian, neguko hotzaren hezetasun-samindurarekin batera. Baina hori ez dugu ikusiko gure kale-kantoieta baxter distiratsuetan. Ez digute horren berri emango gure telebista-kateetako emankizun berezi itxuragabeetan. Alaitasuna, poza, festa izango ditugu, gehiegikeriaz emanak, eguneroko ordu guztietan.

Baina errealitateak den bezalakoxea izaten jarraituko du aurtengo Gabonetan, festak kolorez eta distiraz jantziko baditugu ere!

L A P H I T Z A

